



BIODIBERTSITATEA ERAIKINETAN PROIEKTUA

LABURPENA

IAN/ANIren ingurumen ekimenak finantzatzeko EROSKIK egindako ekarpena, Gasteizko herritarren ingurumen kontzientziazioa tarteko. Diru laguntzaren zati bat proiektuaren atal bat finantzatzeko erabiliko da. Etorriko diren fase berrietarako beste diru iturri batzuk lortzea da helburua, beti ere IAN/ANIren proiektuetara bideratzeko.

Proiektuaren **helburu nagusia** hurrengo da: **eraikin berri zein zaharretan bizi den biodibertsitatea balioan jartzeko baldintzak sortzea**. Ondorioz, ikuspuntu desberdinetatik gaia kontuan hartzeko beharra sortzea:

- ✓ **Kulturala:** eraikinei loturiko faunaren ezagutza eta dibulgazio lana.
- ✓ **Arkitektonikoa:** eraikin berri zein zaharretan biodibertsitatearen kontserbaziora bideraturiko erizpideak txertatzea. Era berean, dagoeneko eraiki zein birgaitutakoetan biodibertsitatea handitzeko neurriak ezartzea.
- ✓ **Soziala:** herritarren artean inguruan dugun naturarekiko ezagutza eta harremana sustatzea, geure ondarearen zati izatera pasa dadin. Modu honetara, biztanleek beren herri-harrotasuna indartuko duen balio gisa ikus dezaten.
- ✓ **Turistiko eta ekonomikoa:** naturaren kalitatea babestu edo hobetzea helburu duten ekimenak sustatzen badira inguruan ditugun balio naturalak ondare turistiko edo ekonomiko gisa ere kudea daitezke. Udal ondare arkitektoniko zein artistikoari bioaniztasun balioak gehitu, osotasun ikuspuntu batetatik.

Eraikin batek bildu dezakeen balio arkitektonikoa zein bioaniztasuna osotasun baten zati dela azpimarratzea. Eliza bati bere arku, kasetoidura, eskultura zein erretaulak ematen dion bezainbesteko balioa duela bertan bizi daitezkeen hotz-zuri, saguzar edo sorbeltzek.

PROIEKTUAREN FITXA

Izena:	“Biodibertsitatea Eraikinetan”
Laburdura:	BIOED
Onuraduna:	Arabako Natur Institutua IAN/ANI
Babeslea:	Eroski Fundazioa Eusko Jaurlaritzza, Arabako Foru Aldundia, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, SEO/Birdlife eta Aranzadi
Laguntzaileak:	Zientzia Elkartea.
Aurrekontua:	2.450 €
Epea:	2018 urtea
Web:	www.ian-ani.org

Faseak:

- ✓ **Adituen lan taldearen sorrera**: Josean Gainzarain (IAN-ANI), Urtzi Goiti (EHU), Iván de la Hera (Txepetxa, Aranzadi), Azaitz Unanue (IAN-ANI, Txepetxa, Aranzadi), Jonathan Rubines (AFA), Andrés Illana (Gaden), Diana Paniagua (Gaden), Luis Lobo (Vitoria-Gasteizko Udala), Brian Webster (IAN-ANI), Marina Guerrero (Txepetxa, Aranzadi), Luis Rodriguez (Arkitektoa, IAN-ANI), Jordi Gómez (IAN-ANI, Txepetxa, Aranzadi). SEO/Birdlife, Aranzadi Zientzia Elkarte, Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.
- ✓ **Landa lana**: Vitoria-Gasteizko eraikin zerrenda zehatz batetako zentso faunistikoak. Birgaitzea egon bada, aurreko zein osteko egoera alderatu eta neurri konpentsatzaileak hartu badira berauen eragina neurtzea.
- ✓ **Tailerak, hitzaldiak eta behaketarako irteerak**. Landa lanak emandako datuak eta irudiak erabiliz Power-Point aurkezpen bat prestatuko da. Aurkezpena moldatzeko aukera egongo da emanaldiaren formatua, urteko garaia zein publikoaren arabera. Tailerretan gainera, habia-kutxa mota ezberdinak eraikitzen ikasi ahal izango da: hontz-zuri, belatxiki, sorbeltz arrunt, enara azpizuri, saguzar espezie desberdinentzat... tailer hauek neguan ere egiteko egokiak dira eta beti izango dute gaia kokatzeko azalpen teoriko bat.
- ✓ **Bilerak**: eraikuntza zein birgaitze lanekin lotuak egon daitezkeen hainbat entitaterekin, eraikin berri zein zaharretan egiten diren obren inpaktua murrizteko neurriak hartu eta fauna erakartzeko tresnak txerta ditzaten: Arkitektoen Kolegio, Santa María Fundazioa, CEA, AFA, Eusko Jaurlaritza...
- ✓ **Erakusketa** Vitoria-Gasteizko eraikin esanguratsuak eta beraien faunari buruz.
- ✓ **Habia-Kutxen kokapena** hegazti zein saguzarrentzako eraikin publikoetan, kumatze guneen galera orekatzeko asmoz, sakabanatutako kolonien sare bat sortuz.
- ✓ **Dibulgazio kanpaina** proiektua medioetan aurkeztuz, sare sozialak, web eta blog... Eritzi publikoarengana heltzea oso garrantzitsua izango da.
- ✓ **Bioaniztasun Gidariak formatzea**. Gasteizen gaur egun lanean jarduten duten gida turistikoak bioaniztasun balioetan formatzea izango da beste helburu bat eta honetarako ezagutza eta tresnak ematea. Modu honetara, beraien ezagutza arkitektoniko zein historikoa aberasteko aukera izango dute eta publikoari erakargarriagoa egingo zaizkion azalpenak emateko parada izango dute. Lan taldea, biologo zein naturzalez osatua, ardura daiteke formazioa emateaz.
- ✓ **I Nazioarteko Sinposioa Fauna eta Eraikinak, kudeaketa eta kontserbazioa**: Ideia zein ezagutzen partekatzea bultzatu, eraikuntza zein birgaitze proiektu berrietan biodibertsitatearen kontserbazioa eta ezartzea erraztuko duten neurriak jarriko dituzten erizpideak ezartzeko. Gai honen inguruan arautuko luketen ordenantza zein legeentzako erizpideak ezarri.

Esparru desberdinetako profesionalak gonbidatu:

- 1) Eraikuntza esparrua: enpresak, arkitektoak, aparejadore, arkitektoen kolegioak, paisajistak eta alorreko beste edozein elkarte.
- 2) Administrazioa esparrua: Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta berauen ingurumen zein ondare edota urbanismo sailak.
- 3) Esparru naturzale edo ekologista: kontserbazioan espezializatutako profesionalak, elkarte ekologista edo naturzaleak, zientzia elkarteak, ingurumen abokatuak...
- 4) Esparru zientifikoa: biologoak, ingurumen zientzialariak, hegazti zein kiropteroetan adituak...

www.ian-ani.org

<http://ian-ani.blogspot.com.es/2018/01/ponemos-en-marcha-el-proyecto.html>

info@ian-ani.org